



OIARTZUNGO UDALEKO 0-2 URTEKO HAURRENTZAT JANGELA-ZERBITZUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

ATARIKOA

Oiartzungo udalerriko haur hezkuntza sisteman aldaketak eman berri dira. Aurrerantzean, 0-2 urteko gelak Haurreskolak Partzuergoak kudeatuko ditu, eta haur horiek eskola garaian kalitatezko bazkaria izan dezaten bermatzen jarraitu nahi du Udalak. Izan ere, Oiartzungo Udalak, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bitartez, janaria prestatzeko jangela-zerbitzua izan du haur horientzat azken 31 urteetan eta hiru hamarkadetan herritarren eskura egon den zerbitzu horrek horrela jarrai dezan bermatu nahi da.

Arautuko den zerbitzu hau behar-beharrezkoa da Oiartzunentzat, izan ere, familien kontziliazioan laguntzen du, elikadura osasuntsu eta orekatuaren bitartez Osasun Publikoaren eta gaixotasunen prebentzioaren alde egiten du, segregazioaren aurkako neurri gisa ere bere funtzioa du, hezkuntza-proiektuaren parte izan daiteke eta tokiko ekonomia babesteko eta Lehen Sektorea bultzatzeko aukera ere eskaintzen du. Era berean, zerbitzua dagokion haur-eskolaren hezkuntza-proiektuarekin bat etorritik garatuko da, haurren garapen integrala, hizkuntza-garapena eta euskararen erabilera naturala sustatzeko. Alegia, herriko 0-2 urte bitarteko haurren elikadura osasungarria eta jasangarria bermatzeko helburua du araudi honek, familien ongizatea eta benetako kontziliazioa sustatzeko eta tokiko elikadura-sistema eta -ohitura jasangarriak garatzeko.

Hortaz, araudiak jangela-zerbitzu horren funtzionamendua arautzen du, 0-2 urte bitarteko Oiartzungo haurren eskola-garaiko bazkarien irisgarritasuna berdintasun, kalitate eta jasangarritasun printzipioen aterpean eman dadin. Araudian jasota daude zerbitzuaren definizioa, erabiltzaile izaera hartzearen eta galtzearen nondik norakoak eta zerbitzuaren kudeaketa eta kontrola.

Ordenantza honek erantzuna ematen dio 0-2 urte bitarteko haurrentzako jangela-zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko premiari. Horretarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak hartu dira kontuan. Horrela, araudiak zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua bermatzeko ezinbestekoak diren alderdiak baino ez ditu arautzen.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da Oiartzungo 0-2 urte bitarteko haurren eskola-garaiko bazkariak bermatzeko jangela-zerbitzuaren edukia, helburuak eta erabilera baldintzak arautzea.

Zerbitzuaren helburua da eskola egunetan haurren elikadura osasungarri, orekatu eta kalitatezkoa bermatzea, familien kontziliazioa sustatzea eta zerbitzua berdintasun-, irisgarritasun-, kalitate- eta jasangarritasun-printzipioen arabera ematea.

2. artikulua. Zerbitzuaren definizioa.

Jangela-zerbitzua Oiartzungo Udalak herriko eta haur-eskolako 0 eta bi urte bitarteko hurrei ematen dien zerbitzu publikoa da, eta horren bitartez hurrei bazkaria emango zaie eskola-garaian, beren hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektiboan.



Zerbitzuak barne hartzen ditu elikagaien prestaketa, garraioa hala dagokionean, banaketa eta bazkariaren kudeaketarekin zuzenean lotutako gainerako jarduerak.

Jangela-zerbitzua haurren hizkuntza-garapena laguntzeko eta euskararen erabilera naturala sustatzeko ingurune egokia izango da, dagokion haur-eskolaren hezkuntza-proiektuarekin eta Oiartzungo Udalaren hizkuntza-politikarekin bat etorritz.

3. artikulua. Zerbitzuaren finantzaketa.

Jangela-zerbitzua erabiltzaileek egindako ekarpenen bidez finantzatuko da, eta kostua estaltzeko Oiartzungo Udalaren aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituen bidez osatu ahalko da.

Zerbitzuaren erabiltzaileek dagokien prezio publikoa ordaindu beharko dute indarrean dagoen ordenantza fiskalean edo hura arautzen duen xedapenenean ezarritakoaren arabera.

II. KAPITULUA

ERABILTZAILEAK

4. artikulua. Erabiltzaileak.

Jangela-zerbitzuaren erabiltzaile izango da bi ezaugarri hauetako edozein betetzen duena:

- 1.- Oiartzungo udalerrian erroldaturiko 0 eta 2 urte bitarteko haurrak.
- 2.- 0 eta 2 urte bitartekoak diren eta haurrentzako hezkuntza-zerbitzua Oiartzunen jasotzen duten haurrak.

Beti ere araudi honetan, zerbitzua arautzen duten gainerako arauetan eta Ordenantza Fiskaletan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

Erabiltzaile izaera zerbitzua erabiltzen den ikasturterako aitortuko da.

5. artikulua. Erabiltzaile izaera galtzea.

Ondorengo arrazoi hauek direla-eta galduko da jangela-zerbitzua erabiltzeko aukera:

- a) Oiartzungo Udaleko dagokion Ordenantza Fiskalean xedaturiko prezio publikoa ordaintzeari uztea.
- b) Erabiltzailea adinagatik haur-eskola zerbitzuaren hartzaile izateari uztea.
- c) Zerbitzuaren erabiltzailearen legezko ordezkariak espresuki uko egitea, Ordenantza Fiskaletan ordainketen itzulerari buruz zehaztutakoaren kalterik gabe.

6. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Zerbitzu honi dagokionez, eskubide orokor hauek dituzte erabiltzaileak:

- a) Kalitatezko elikagaiak jasotzeko eskubidea.
- b) Zerbitzua berdintasun baldintzetan jasotzeko eskubidea.
- c) Zerbitzua haurraren adinera eta, behar bezala justifikatutako kasuetan, haren osasun- edo elikadura-premietara egokitutako arreta jasotzea.
- d) Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztea.

7. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Erabiltzaileen legezko ordezkariak honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendu egokirako beharrezkoa den informazioa ematea eta eguneratua mantentzea.
- b) Haurren osasunean, alergietan, intolerantzietan edo elikadura-behar berezietan eragina izan dezakeen edozein inguruabarren berri ematea.
- c) Zerbitzuaren erabileragatik egin beharreko ordainketa epe eta modu egokian egitea.
- d) Zerbitzuko langileek emandako jarraibideak errespetatzea eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia erraztea.

III. KAPITULUA

ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA KONTROLA

8. artikulua. Zerbitzuaren egutegia eta ordutegia.

Jangela-zerbitzua ikasturte bakoitzean emango da, dagokion ikasturterako ezartzen den eskola-egutegiari egokituta. Egutegia eta, hala badagokio, funtzionamendurako jarraibide osagarriak ikasturte bakoitzaren hasieran jakinaraziko dira.

Zerbitzua bazkari-orduan emango da, haurrak hezkuntza-jarduera egiten duen zentroak horretarako ezarritako ordutegiaren arabera.

9. artikulua. Zerbitzuren kudeaketa.

Zerbitzua Oiartzungo Udalak emango du, zuzenean edo zeharka, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako kudeaketa-moduen bitartez. Zeharka ematen den kasuetan, administrazioen kontratuak arautzen dituen legearen baitan izapidetuko da prozesua.

Zerbitzuaren prestazioa gauzatzen duten pertsonak edo enpresek indarrean dagoen osasun-, higiene-, segurtasun- eta elikadura-arloko araudia bete beharko dute, baita zerbitzuaren kalitatea bermatzeko ezartzen diren gainerako baldintzak ere.

Zerbitzua hirugarren baten bitartez ematen denean, udalaren ikuskapen-, kontrol- eta jarraipen-ahalei kalterik egin gabe emango da.

Zerbitzua zuzenean nahiz zeharka ematen denean, zerbitzua ematen duten langileak eta, hala badagokio, enpresa adjudikaziodunak Oiartzungo Udalaren hizkuntza-irizpideak bete beharko ditu, eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.

10. artikulua. Udalaren ahalmenak.

Oiartzungo Udalak, zerbitzuaren titular gisa, honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Udalerrian dauden beharrak identifikatzea eta zerbitzuaren eskaintza behar horietara egokitzea.
- b) Zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna ebaluatzea.
- c) Zerbitzua emateko beharrezkoak diren jarraibideak eta irizpide teknikoak ezartzea.
- d) Zerbitzuari buruzko informazioa eta publizitatea egitea eta haren zabalkundea sustatzea.
- e) Araudi hau interpretatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren ebazpenak ematea.

11. artikulua. Ikuskapena eta kontrola.



Oiartzungo Udalak zerbitzuaren funtzionamendu egokia zainduko du eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen, jarraipen eta kontrol jarduketak egin ahal izango ditu, baita zerbitzua hirugarrenen bidez ematen denean ere.

12. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Jangela-zerbitzuaren kudeaketaren ondorioz tratatzen diren datu pertsonalak datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko dira, eta zerbitzuaren antolaketa, kudeaketa, kontrola eta finantzaketarekin lotutako helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Bereziki babestuko dira erabiltzaileen osasunari, alergiari, intolerantziari edo elikadura-premia bereziei buruzko datuak.

Zerbitzuaren prestazioan parte hartzen duten pertsona edo erakunde guztiek tratatzen dituzten datuen konfidentzialtasuna bermatu beharko dute, eta datu horiek ezin izango dituzte hirugarrenei jakinarazi, legeak baimentzen dituen kasuetan izan ezik.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

2026ko irailaren 30ean hasiko da indarrean araudi hau.